



"KALEAK BETE DITUGU"

Martxoaren 8ko mobilizazioek jendetza erakarri zuten Andoainen. Asanblada Feministako kideak lanean jarraitzeko prest daude. / 2-10

Aldarrikapena eta ospakizuna elkar hartuta

"Martxoak 8 emakume. Pausoz pauso" ekimenaren edizio berria egin zuten Andoainen, martxoaren 9an. Beste behin ere, parte hartze handiarekin / 6



Andoainen herritarrez osaturiko Berdintasun Kontseilua sortu ala ez erabakitzeko bilera deitu dute / 7



Urnietako Udalak deitu zuen elkarretaratzea jendetsua izan zen, azken urteotako joerari eutsiz / 10



"Outlet-a kalean" Salkineko dendari eta merkatarien eskaintza bereziak egun hauetan, Andoainen / 16



Zine goak

2019

www.zinegoak.com

Elkarrizketak, filmak, dokumentalak, irazketa eta arte eszenikoen jaialdia

Elkarrizketak, filmak, dokumentalak, irazketa eta arte eszenikoen jaialdia

Elkarrizketak, filmak, dokumentalak, irazketa eta arte eszenikoen jaialdia

Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte eszenikoen jaialdia

Martxoaren 15ean eta 22an, 22:00etan, Lekaio kultur etxean



Zine goak



Goikoplazatik abiatu ondoren, Agustín Leitza kaletik Kale Nagusira jaitsi ziren manifestariak. Andoaingo Asanblada Feministaren deialdiak erantzun zabalera jaso zuen. AIURRI

Andoain, eremu feminista

Azken urteetan Andoainaren egin diren manifestazio handienak martxoaren 8ari loturikoak izan dira. Aurtengoak 2018ko deialdi arrakastatsuari segida eman dio, aurreikuspen guztiak gaindituz. Feminismoa indartsu dago Andoainaren

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Genero ikuspegiarekiko eta feminismoarekiko kontzientzia hartze kolektiboa ematen ari dela ondorioztatu daiteke, martxoaren 8ko manifestazioari erreparatu gero. Ez da hutsean sortu, eta ez da soilik Andoainera mugatzen. Kontzientzia hartze hori Euskal Herri osora zabaltzen ari da. 2018ko deialdietan urrats handia eman zen. Orduko hura, baina, ez zen salbuespena izan eta urtebete beranduago borroka feministarekin bat datozeala erakusten ari

dira andoaindar asko eta asko. Emakumezkoak nagusiki, eta baita gizonezkoak ere.

Azken urteotako manifestazio handiena izan zen ostiralekoa. 11:30ak iristeko minutuak falta zirenean, Goikoplazan jende ugari bilduta zegoen. Deitzaileek, Andoaingo Asanblada Feminista, gogotsu zeudela aitortu zuten gerora. Eta horregatik ondorioztatu daiteke manifestazioa garaiz eta arin irten zela. Inori gehiago itxaron gabe, "Heteropatriarkatu kapitalistari planto! Bizitzak erdigunean" zioen pankartaren


atzetik abiatu ziren. Ehunka eta ehunka lagun ziren herrigunea zeharkatu zutenak. Pankarta gehiago ikus zitezkeen, greba deialdiaren bost ardatzei loturikoak (zaintza, ikasleak, kontsumoa, pentsioak eta enplegua). Horiek guztiak deitzaileek egingakoak ziren. Ez ziren bakarrik izan, gutxienez bi gehiago ikus zitezkeelako: Martin Ugalde Kultur Parkeko langileena edota Leizaran institutuko ikasleena.

Jendetza hori batuta, manifestazioa gainerako herrikideentzat ez zen oharkabea izango.

Merkatariak martxoaren 8arekin bat



Salkin elkarteak emakume langilegoaren nazioarteko egunerako sentsibilizazio kanpaina berezia egin zuen, afitxen bidez zabaldu zuena. AIURRI



Dendari batzuk Salkineko eta Asanbladako deialdiekin bat egin zuten. AIURRI



Jendetza zeterren pankartaren atzean, martxoaren 8ko manifestazioan. AIURRI



Kale Nagusian eta Zumea kaleetan manifestazioak luzera handi samarra hartu zuen. AIURRI



Ez ziren denak, baina Andoaindik Donostiako manifestaziora joandako gehienak taldeko argazkirako elkartu ziren. AIURRI

Martxoaren 8a, aldarrikapen eguna



Kotxe karabana Kaletxikitik barrena. AIURRI

Goiza 09:30ak baino lehen abiatu zen kotxe-karabana, Makaldegitik. Kaleberriatik ibili eta gero, Goikoplaza aldera joan ziren. Kaletxikira jaitsi eta gero, Leizotz industrigunera abiatu ziren. Hogeita bi ibilgailu ibili ziren greba deialdiaren berri ematez.



Manifestariek adierazpen bakoitza txalo zaparradarekin erantzuten zuten. AIURRI

Eguerdia Manifestazio jendetsua Goikoplazatik abiatu zen, Zumea plazaraino. Asanblada Feministako bi kidek manifestua irakurri zuten, euskara eta gaztelania uztartuz. Pentsiodunak, zaintzaileak, ikasleak..., sektore zaurgarrienak gogoan hartu zituzten.



Kantaldia eta gero, jolas parte hartzaileak antolatu zituzten. AIURRI

Arratsaldea Bazkarira uste baino jende gehiago hurbildu zen, eta batzuk lurrean bazkaldu behar izan zuten. Giro ederrean igaro zen bazkalostea, kantaldiarekin eta jolas parte hartzaileekin. Aulkiak eta mahaiaik jasota, bazkalostetik Donostiako manifestaziora joan ziren.

Asanblada Feminista: "Kaleak bete ditugu"

Andoaingo Asanblada feministako kideek martxoaren 8ko greba eguna oso positiboki baloratu dute: "Oraindik ere emozioak dantzan ditugu. Lanean jarraitzeko gogoz gaude. Atsedean hartzeko unea da, baina gertu ditugu Santakruzak"

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Donostiako manifestazioa amaituta, Andoaingo bidean zirela, Aiurri astekariak egunaren balorazioa egitea eskatu zien Andoaingo Asanblada Feministako kideei. Hauxe izan zen telefonoaren bestaldetik bi kidek egindako balorazioa: "Bezperan, pintxopote more feministarekin greba deialdiari ekin genion. Ez zen jende asko hurbildu baina oso giro polita sortu zen. Zumea plazan dantzan amaitu genuen! Oro har, ordu horietan herritar asko konturatzen hasi zen martxoaren 8a iristear zegoela.

Greba egunari euripean ekin diogu, Makaldegitik irten den



Manifestazioaren argibideak eskaini zituzten, Goikoplazan. AIURRI

kotxe karabanarekin. 22 ibilgailu mugitu gara herrigunean eta industrigune ezberdinetan. Arreta handia bereganatu dugu. Iaz ez genuen horrelakorik egin eta arrakastatsua izan da. 11:00ak aldera Goikoplazan elkartu gara, eta 2018an bezala manifestaziorako ikusgarria izan da. Manifestazioari hasiera emateko gogo bizia nabaritzen zen. Iazko arrakasta eta gero beldur piska bat bagenuen, baina kontrakoa gertatu da. Jende gehiago elkartu gara. Kaleak bete ditugu.

Basterotik pasa gara, bazkariari ekin aurretik. Laguntzera emakume ugari elkartu da. Eskertzekoa da lanaren pisu guztia Asanbladaren esku ez uztea. Bazkari autogestionatua aurrera atera bada, denek bere ekarpena egin dutelako izan da. 80 lagun espero genituen, baina azkene-rako askoz gehiago izan gara.

"BAZKALOSTEAN, MUSIKARIEN SAIOAK BATU EGIN GAITU. ETA JOLASETAN GIRO APARTA SORTU DA"

Eta kide batzuk pankartak lurrean ipini eta bertan bazkaldu behar izan dute. Oso giro polita izan da bazkarian, eta bereziki ondorengo kantaldian eta jokoetan. Musikarien saioak elkartu egin gaitu. Jolasen saioa arrakastatsua izan da ere. Berehala sortu ditugu lau talde. Proba ezberdinak ipini dizkiegu, *pike* sanoa sortu da, eta denon artean giro hobea eman diogu bazkalosteari.

Donostiako manifestaziora autobusean joan gara. Donostian bertan Andoaindik joan garenok elkartu eta taldeko argazkia atera dugu. Ilaz baino askoz gehiago hurbildu gara Donostiara.

Horregatik guztiagatik oso balorazio positiboa egiten dugu. Oraindik ere emozioak dantzan ditugu. Lanean jarraitzeko gogoz gaude. Atsedean hartzeko unea da, baina gertu ditugu Santakruzak".

"DONOSTIAKO MANIFESTAZIORA IAZ BAINO JENDE GEHIAGO ABIATU DA ANDOAINDIK"



Kantu liburuxka 2019
ARGITALPEN BEREZIA

AIURRI

Astarbe
943 551 527 Astigarraga

Gaztañaga
943 591 968 Andoain

Larre-gain
943 555 846 Ereñozu-Hernani

Mizpiradi
943 593 954 Andoain

R. Zabala
943 690 774 Aduna

Sarasola
943 690 283 Asteasu

Sagardoa Route
943 336 811 Gipuzkoa

Hotel K10
943 337 357 Umieta

Amasa-Villabonako Udala
943 692 100

Andoaingo Udala
943 300 830

Urnietako Udala
943 008 000

Mila eta ehun lagunetik gora manifestazioan

Aiurri astekariak Agustin Leitza kalean manifestazio osoaren bideoa grabatu eta internet sarean argitaratu zuen. Manifestazio osoa igarotzeko sei minututik gora behar izan ziren. Zenbatzen hasita, mila eta ehun lagunetik gora bildu ziren

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Argazkilariek manifestazioaren irudi ikusgarriak egiteko aukera izan zuten Goikoplazan, Kale Nagusian behera edota Zumea plazako edozein leihotan jarrita. Distantzia batera jarrita, masa bat zen irudikatu zitekeena. Argazki on baten bila, Guipuzcoano parean dagoen eserlekura igo ziren hainbat argazkilaria. Bertatik Santa Krutz elizara begira jarritz gero, jendea besterik ez zen ikusten. Segundu gutxira argazki bera atera zitekeen, paisaia berdina irudikatuz. Alde bakarra zegoen argazki baten eta bestearen artean: manifestariak ezberdinak zirela.



Ikasle gazteak, manifestazioaren amaieran. AIURRI

Horixe izan daiteke manifestazioa jendetsua izan zela adierazteko neurgailua. Hain arrakastatsu eta ikusgarri izan bazen, zenbat jende bildu ote zen? Zenbatzerik ba al dago? Bada, bai. Aiurri manifestariak zenbatzeko ariketa egin du, eta mila eta ehundik gora direla esan daiteke. Manifestazio osoa bideoz grabatu zuen Aiurrik, Agustin Leitza kaletik igarotzen ari zenean. Internet sarean dago ikusgai, eta manifestari guztiak igarotzen ikusteko sei minututik gora behar dira. Bideoa abiadura motelarekin ipinita, zenbaketa egin eta mila eta ehun manifestari zenbatu daitezke. Kopuruak gorantz egin zuen, Kale Nagusian eta Zumea plazan zehar manifestari berriak elkartu zirelako.

Adin, arraza eta sinismen ezberdinak manifestazioan

Manifestariak erreparatuta, deitzaileek adin, arraza, genero eta sinismen ezberdineko herriki-deak erakartzea lortu zuten: adinekoak, gazteak, haurrak, emakumezkoak, gizonezkoak, zuriak, beltzarranak eta baita beloa zeramatenak ere.

Jarraipena Aiurri.eus gunean

Aiurriko erredakzio taldeak greba deialdiaren jarraipen berezia egin zuen. Gertaerak izan eta minutu gutxira, albisteak, argazkiak eta bideoak webgunearen eta sare sozial ezberdinen bidez (Facebook, Twitter, Instagram) zabaldu ziren. Arreta handia eskaini zitzaion egun osoan zehar, eta interesa bazegoela argi geratu zen. Bisitaldi kopurua ohikoa baino handiagoa izan baitzen. Aiurriko irudiak maiz partekatu ziren. Agustin Leitza kalean grabaturiko bideoak, esaterako, bisitaldi ugari ditu. Gizartean, oro har, martxoaren 8a interes handiarekin jarraitu zen hedabide digital ezberdinetan.

SAHARAAREN ALDEKO BERTSO SAIOA

Andoaingo Bastero Kulturgunean
2019 / 3 / 31 eguerdiko 12:00etan

Ion Beloki
Unai Agirre
Alaia Martin
Unai Muñoa
Aitor Mendiluze
Maialen Lujanbio

Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats

6.00€

ANTOLATZAILEAK

Ekurria Sahara
S.E.A.D-en lagunen elkarte

PUNTUKA
BERTSO ESKOLA

LAGUNTZAILEAK

AXA
Arandona arteak

AIURRI

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua

urkiola



Aurtengo omenduen argazkia. Zutik, Izaskun Jauregi, Arantza Etxeberria, Maria Lazaro, Yolanda Canora, Ane Jalon, Julia Corbo, Ane Lazkano eta June Mateo. Eserita, Paula Nogales eta Asun Garcia. Hauekin batera Andoaingo Musika Banda Errepublikanoko zenbait kide. AIURRI

Martxoaren 8aren jarraipena

Martxoaren 8ko manifestazioan kaleak bete ondoren, martxoaren 9an kolore morea nagusitu zen herrigunean. Jendetsua izan zen "Pausoz pauso" martxa-kalejira, hainbat emakumeren lana iluntasunetik argitara ateratzeko asmoz antolatzen dena

Xabier Lasa ANDOAIN

Katrin Iturraldek zuzentzen duen Udal Musika eskolako gazteen abesbatzak ekitaldiari hasiera eman zion. Ondoren, Esti Mujika kultura zinegotziak hartu zuen hitza: "Emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartu ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztiaren aurka egitea, eta bazterkeriari eta arrazakeriari uko egitea. Egin duten eta egiten ari

diren lana aitortzea da emakumeen eskubideak errespetatzeari begira egin dezakegun gauza askotariko bat".

Mintzaldiaren ostean abian jarri zen kalejira, eta familia aurrera ateratzeko orduan gorriak ikusi dituzten Maria Lazaro eta Paula Nogales izan ziren leluak hartu zuen lehenak. Hortik aurrera, hurrengo omenduak: Yolanda Canora, Andoaingo Musika Banda Errepublikanoko emakumeak, Julia Corbo, Izaskun Jauregi, Ane Jalon, Asun Garcia

"Txonci" eta Andoaingo emakumeen asanbladako kide diren Ane Lazkano eta June Mateo.

Batukada feministaren erritmo bizien pean egin zen ibilaldi guztia, Goikoplazara iritsi zen arte. Han ekitaldi nagusia ospatu zen, Jone Larrañagak aurkeztuta. Kazetariak emakume bakoitzaren biografia azaldu zuen. Ziurrenik, ekitaldia izan zen martxa-kalejirako unerik hunkigarriena.

La Salle-Berrozpe, Ondarreta eta Aita Larramendiko ikasleek ere ekitaldian parte hartu zuten.

Merkatariak martxoaren 8an



Lazaro, Nogales eta Canora aurtengo ekitaldiko lehen omenduak. AIURRI



Beste behin ere omenduek berdintasunaren puzzlea osatu zuten. AIURRI

Herria herri egin zuten emakumeen erakusketa

Itsaso Mendiluzeren zuzendaritzapean, Andoaingo emakumeen historia biltzen duen erakusketaren bigarren atala ikusgai dago Bastero Kulturgunean. 1910 eta 1981 urte arteko dozenaka argazki eta iruzkin ikusgai izango dira apirilaren 6ra biarte



Argazkietan emakumeak eta horiekin batera eraikinak eta paisaiak ikus daitezke. Herriaren garapenaren lekuko dira. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

“Herria herri bilakatu zuten emakumeak” erakusketaren bigarren zatia Basteron ikusgai dago, joan den ostegunaz geroztik. Andoaingo auzo eta kaleetan dendari gida lan egin zuten emakumeak hartzen ditu protagonista erakusketak.

Ana Carrere alkateak eta Itsaso Mendiluzek erakusketako egileek hartu zuten hitza erakusketaren inaugurazio ekitaldian. Carrerek esan zuenez, “beharrezkoa dugu erakusketa, geure historian ezkatatuta eta ahaztuta egon diren Andoaingo emakume askori ikusgarritasuna eskaintzen dielako”.

Itsaso Mendiluzek adierazi zuen erakusketak emakume langileen ibilbidea islatzen duela. “Gaurko jendartea defintitu duten emakumeak dira guztiak ere, gogorarazten digutenak nortzuk garen eta nortzuk eman diguten aukera garena izateko”.

Mendiluzek eskerrak eman zizkien argazkiak utzi eta informazioa eskura jarri diotenei, “euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzateke erakusketa antolatzea. Informatzaile berriengana hurbildu ahala, ar-



Itsaso Mendiluze eta Ana Carrere erakusketaren irekiera ekitaldian. AIURRI

gazki eta datu berriak ari naiz pilatzen, eta badago materiala hirugarren erakusketa baterako”. Etorkizunean liburu bat argitaratzeko asmoa ere aipatu zuen Mendiluzek.

"BADAGO MATERIALA HIRUGARREN ERAKUSKETA BATERAKO"

ITSASO MENDILUZE

Apirilaren 6ra arte zabalik

Argazki-erakusketa astelehentik ostiralera (10:30-13:00 eta 16:30-20:00) eta larunbatean (10:30-13:00) zabalik dago, Basteroko erakusketa gelan.

"ERAKUSKETAK IKUSGARritasuna EMATEN DIO HAINBAT EMAKUMERI"

ANA CARRERE



Zarautzen Berdintasun Kontseilua osatuta dago. BERDINTASUNAZARAUTZ

Emakumeen kontseilua aztergai

Martxoak 23, larunbata. 10:00. Bastero. Deitzailea: Udala.

Berdintasun sailak denbora darama emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politikak sustatzen. Aurrera begira urrats berria eman nahi dute, hainbat herrietan martxan dagoen Berdintasun Kontseilua sortuz. Urratsa eman aurretik, Andoaingo Udalak hitzaldia eta gogoeta tailerra antolatu du. Datorren martxoaren 23an izango da, Basteroko ekitaldi aretoan. Inguruko esperientzien berri jasoko da, tokian tokiko ordezkarien eskutik. Andoaingo gogoetara hiru solaskide hurbilduko dira: Irene Ormazabal Donostiako Berdintasun Kontseiluko kidea, Mari Jose Lasa Eibarko Emakumeen mahaiko ordezkaria eta Edurne Aranbarri Azpeitiko Emakumeen mahaiko kidea. Goizeko 10:00tan emango diote hasiera gogoetari. Ekitaldia irekia da.

Flamenko ikuskizuna Basteron

Martxoak 21, osteguna. 20:00. Bastero. Deitzailea: Zuenak.

"Emakume ausartak, emakume solidarioak" izenburupean, Zuenak elkarteak flamenko jaialdia antolatu du. Hondarribiako Jaizkibel konpainia mistoari aitortza adierazteko emanaldia izango da.





Ilazki Gainza eta Nerea Uribe, Kalakako kideak: "Komunikazioa eta parekidetasuna dira gure lanaren ardatz nagusiak". NOAUA

Erredakzioa URNIETA

Emariak, emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpenen bilduma plazaratu berri duzue. Nondik eta nola sortu zitzaizuen liburu hau plazaratzeko ideia?

Gure aletxoaren erein nahi izan dugu, gure txikitasunetik. Kalaka bi ekintzailek osaturiko kooperatiba bat da, eta ekintzaile bezala ez dugu emakumezko erreferenterik izan. Ekintzailetzan agertzen diren erreferenteak ere gizonezkoak baitira.

Formakuntza saioak eskaintzen ditugu eta alor horretan ere sumatu dugu falta hori. Emariak fitxa bidezko lan bat bezala planteatu genuen hasiera batean, eskoletan lantzeko. Baina ezinezkoa egin zaigu eskolekin elkarlan moduko bat bideratzea eta fitxena baztertu eta liburu gisa plazaratu dugu Emariak. Baliabide gisa, etxetara zein ikastetxeera iritsi ahal izateko.

Erreferenteen zerrenda bat egiten hasiko bagina, gizonezkoen izenak berehala etorriko litzaizkiguke. Emakumeen zerrenda osatzeko ordea, lanak izango genituzke. Liburuan antzeko hausnarketa egin duzue.

Gizonezkoen ekarpenen berri badugu. Ondo dago hori. Gure jakinguriaren parte da. Baina emakumezkoak ere hor egon dira, historian zehar arlo ezberdinetan lanean, eta horien berri ez zaigu eman. Isilaraziak izan direlako edota euren lanak gizonezkoen izenean sinatuta iri-

“Emakumeen ekarpenak isilaraziak izan dira”

ILAZKI GAINZA ETA NEREA URIE KALAKA

'Emariak' liburu argitaratu dute, historian zehar isilarazia izan den emakumeen lana argitara ekarriz. Biografia laburrak dira, ilustrazio ederrez hornituak

tsi zaizkigulako. Gure liburuan emakume asko falta dira baina lan honen bitartez gehiago ikeritzeko gogoia piztuarazi nahi diogu irakurleari. Sarean bada informazio ugari gaztelaniaz eta

"LIBURUA BALIABIDE GISA SORTU DUGU, ETA ESKOLETARA IRISTEKO MODUA IZAN DAITEKE"

atzerriko hizkuntzetan, baina euskaraz ez dugu topatu hala-kerik, eta horregatik plazaratu dugu biografia-bilduma hau. **Bitxia da. Zuen lan tresna propioak sortu behar izan dituzue.**

Hala da. Baliabide gisa sortu dugu eta eskoletara iristeko modua izan daitekeela uste dugu. Harrera ona izaten ari da. Intereza piztu du eta askok begiak zabaldu dituzte. Gauza asko ezezagunak zaizkigula konturatu direlako. Orain, liburuan ditugu eskura.

Bertakoak eta nazioartekoak. Garaiakideak eta aspaldiakoak. Anitza da egin duzun aukeraketa.

Irizpide batzuk jarri behar ziren. Bat, biografiak garai ezberdinetakoak izatea. Ez baita gauza

"LIBURUA DBH MAILATIK GORAKO IKASLEENTZAT EGOKIA DA, BAINA BAITA GURASOENTZAT ERE"

bera Egipto batean jaiotzea X. mendean edo Gipuzkoan jaiotzea XXI. mendean. Inguruak, garaiak eta herrialdeak asko baldintzatzen du. Euskaldunak eta nazioartekoak ere uztartu ditugu, emakumeen borroka mundu mailakoa delako.

Liburutik kanpo geratu diren emakumeekin, beste bilduma bat osatzeko lain baduzue. Segidarik izango al du Emariak?

Beste bilduma bat egiteko aukera ez dugu baztertzeko. Ideia gehiago ere baditugu. Baina ez da lan erraza. Oraingo hau zabaldu nahi dugu, jendearengana iritsi eta gero gerokoak. Horrelako baliabide gehiago sortzeko asmoa dugu, sentsibilizatzeko modu bat dela iruditzen zaigulako.

Biografiekin batera, bi kolektibo nabarmendu dituzue liburuan: etxean lan egiten duten emakumeak eta sufragistak.

Etxean lan egiten duten emakumeak jarri ditugu lehenbizi, haiei argi pixka bat ematearren. Emakume askok lan isila egin dute iritsi garen tokiraino iritsi ahal izateko, eta oraindik ez diegu merezi duten aitorturik egin. Itzalean egon dira eta itzalean jarraitzen dute. Eta sufragistekin gauza bera gertatzen da.

Liburuaren amaieran ulermen ariketa batzuk datoz. Liburuak badu funtzio pedagogiko bat, ezta?

Jendea gauzak ulertarazi. Hori da gure zeregina formazioak eskaintzen ditugunean. Ariketa horiekin kontua ez da hamarrekoa lortzea, irakurritakoa barnerratzeko baizik. Eta jendea baliabide pedagogiko bat eskaintzea.

"Gure esku dago, beraz, ikuspegia aldatzea eta datoen belaunaldiei isilarazi diguten historia kontatzea". Liburuan dator esaldia. Gazteengan pentsatuz plazaratu al duzue?

Euskara txukunean argitaratu dugu baina ez dugu modu konplikatu batean idatzi. DBHtik aurreragoko ikasleentzat egokia da, baina baita guraso zein irakasleentzat ere. Eraldaketarako pertsona egokiak direla uste dugu; haur eta gazteekin harreman zuzena dute eta behar bezalako transmisioa egin dezakete.

Liburu auto-editatu egin duzue. Non eskuratu daiteke 'Emariak'?

Dendetan dago salgai. Gure webgunean ere egin daiteke *on line* bidezko erosketa, kalaka.eus helbidean. Hainbat udal liburutegietan topatuko duzue bestela.



"Emariak" liburua eskuetan, Kalaka komunikazio bulegoko kideak. KALAKA

lazko martxoaren 8ko grebak mugarri bat ezarri zuen. Aurtengo deialdiaren arrakasta ulertzeko gakoetako bat dela esan daiteke, ezta?

Oso indartsua izan zen iazkoa eta belaunaldi ezberdinetako emakumeak batu ginen. Helduak, gazteak, ikasleak... Arlo ekonomiko ezberdinekoak, gainera. Horrek beste dimentsio bat eman zion mobilizazioari. Bai hemen eta baita espainiar estatuan ere. Urte osoan nabaritu da gainera.

Bestetik, greba emakumezkoek bakarrik egin izana deserosoa izan zen lantoki batzuetan baina horren ondorioz emakume batzuk hobeto jabetu dira egoe-

raz. Eta gizonezko batzuk deialdia hobeto ulertu dute eta errespetatzen ikasi dute.

Aldi berean, badut kezka bat. Ez ote den moda moduko batean bihurtuko. Beldur hori dut. Jende asko ari da bere burua feministatzat definitzen, baina jende horren eguneroko ekintza askotan ez dut jarrera hori hain argi ikusten.

Itxurakeria da nagusi akaso?

Oso erraza da berdintasunaren alde zaudela esatea. Baina hori frogatzeko garaia iristen denean, hor ikusten da jende bat ez dagoela hain alde. Arlo askotan ematen da hori: politikan, kirolean, enpresa mailan... Sen-

tsibilizaziorako oso baliogarria izan zen iazko greba baina uste dut gauza asko daudela egiteko oraindik. Bizi dugun ezberdintasun egoera ez da egun batetik bestera aldatuko, arazoa egiturazkoa baita. Sistemari lotuta dago.

Lehen ados ez zegoen jendea orain gauza batzuen alde borrokatzeko prest dago. Baina bizitzaren arlo guztietan daude desorekak; lanean, bikote harremanean, etxean...

Arazoa integrala dela esan nahi duzu.

Hori da. Gizartea matxista da eta jasotzen ditugun estimulu gehienak matxistak dira. Batzuei zaila egiten zaie konturatzea arazoa integrala dela eta ikuspegi aldaketa eskatzen duela. Liburuan diogun bezala, norberarengan dago ikuspegi hori zabaltzea eta horretaz jabetzea. Zentzu horretan, erreferenteak oso garrantzitsuak dira, besteak beste, etorkizunari begira ditugun ametsak bete ahal izateko. Duela aste batzuk ezagun egin zen lau urteko neska baten kasua. Handitan mutila izan nahi zuela azaldu zion amari, suhiltzaile bezala lan egin nahi zuelako. Umeak ez zuen emakumezko suhiltzailerik ezagutzen. Bere erreferenteak guztiak mutiliezkoak ziren. Dena dago lotuta. Erreferenteak edukitzea, hizkuntza ez sexista erabiltzea...

Eta emakumea ez ezik, gizonezkoa ere horretaz jabetzea.

Komunikazioa eta feminismoa

"Hutsunea sumatu genuelako osatu genuen kooperatiba, duela lau urte. Komunikazioa genero ikuspegitik lantzeko premia zegoela iruditzen zitzaigun. Gaztelan badauke hainbat kooperatiba feminismoaren eta hezkuntzaren inguruan lanean, baina euskaraz ez genuen halakorik. Komunikazioaren mundutik gatoz biak eta gure txikitasunetik hutsune hori bete nahi izan dugu. Kalakaren bi ardatz nagusiak komunikazioa eta feminismoa dira. Eta bi ardatz horien inguruan lau zerbitzu hauek eskaintzen ditugu: diseinu grafikoa,

komunikazio estrategiak, aholkularitza eta formazioa.

Aholkularitza arloan, Emakunderen homologazioa dugu eta berdintasun planak eskaintzen ditugu. Eta formakuntza arloan ipuin parekideen inguruko ikastaroak eskaintzen ditugu, besteak beste.

Azkenaldian eskakizunen arabera aritu gara lanean eta sormenari lotutako egitasmo bat botatzen genuen faltan. Emariak liburuarekin asetu dugu premia hori. Bide batez, baliabide bat sortu dugu; elkarbanatu egin daitekeen baliabide bat".

ANDOAINO PIANO JAIALDIA



Telebistan
ikusgai

Martxoak 15
OSTIRALA

18:30 | 22:30



Aurtengo Zinegoak zikloaren irudia. ZINEGOAK

Martxoaren 8ko egitaraua

Zinegoak zinema zikloa eta antzerki emanaldia, asteburu honetan Lekaion eta Saroben

Erredakzioa URNIETA

Zinegoak zikloa martxoaren 15ean eta 22an Lekaion. Antzerki emanaldia Saroben.

Antzerkia Saroben

“7ak bat, gaiztoetan gaiztoenak” antzezlan euskaraz. Larunbat honetan, 19:00tan hasita. Kome-ria, satira eta sarkasmoa.

Bilboko Zinegoak zikloa Urnietan

Gay, lesbiana eta trans pertsonen buruzko nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia da, erreferentziazkoa bilakatu dena. Programazioak ohiko arauetatik kanpo geratzen diren pertsonengan jartzen du azpimarra, gizarteak ezartzen dituen ereduetik urruntzen direnak.



Saroben antzezlan euskaraz, larunbat honetan. ATX

Udalak deitutako elkarretaratzea Urnietan

Inguruko herrietan piztu den mugimendu feminista antolatua eta parte hartzailea ez da Urnietan nabaritu, eta emakumeekin eta feminismoarekin kontzientziatuta dauden herritarrek Udalak deituriko elkarretaratzera hurbildu ziren



Urnietar ugari hurbildu zen martxoaren 8an Udalak antolatu ohi duen elkarretaratzera. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako Udalak martxoaren 8an elkarretaratzea deitzeko ohitura sortu du. Azken urteotan bezala, San Juan plazan egiten duten deialdia jendetsua izan da. Donostian greba orokorra-rekin eta feministen mugimenduarekin bat eginik milaka lagun manifestazioan zeudela kontutan hartuta, udalaren deialdiak urnietarren erantzun zabala lortu zuen. Elkarretaratzea isiltasu-

nean igaro zen, txalo artean amaitu zena. Lehenago, protagonismo berezia hartu zuten kirol munduko emakumeek.

Argazki erakusketa eta aitortza ekitaldia plazan

Plazan zehar Korner Kultura eta Futbol Festibalak egindako hainbat panel ikusgai ipini zituzten. Erakusketa horretan emakumezkoen futbolak historian zehar izandako ibilbidea

azaltzen da. Urnietako Udalak erakusketa bertakotu nahi izan zuen, eta aitortza eskaini zion kirolari talde bati. Mikel Ibargoienek gidatutako saioan, Itsasne Urruzola pala jokalaria, Nagore Huizi, Marta Ollakarizketa eta Alba Cabrera futbol jokalariek, Kontxi Estevez eskubalo jokalaria eta Leire Larrañaga judokak euren esperientziaren berri eman zuten.



Elkarretaratzea baino lehen Urruzola, Ollakarizketa, Cabrera, Huizi, Larrañaga eta Estevez kirolariei aitortza eskaini zieten. AIURRI

Ainara de Miguel, EH Bilduko alkategaia

Maiatzaren 26ko Udal hauteskundeei begira, oposizioko lehen indarra den EH Bilduk hautagaiaren berri eman du. Lekaion antolatu zuten ekitaldi irekian, Ainara de Miguel hautagaiak bere aurkezpena egin zuen. Alderdikideak eta lagunak izan zituen alboan



Urnietar ugari hurbildu zen martxoaren 8an Udalak antolatu ohi duen elkarretaratzera. AIURRI

Xabier Lasa URNIETA

Ainara De Miguel izango da EH Bilduren alkategaia, 2016ko maiatzeko Udal hauteskundeetan. Itziar Artola egungo zinegotziak aurkeztu zuen jendaurrean, pasa den martxoaren 5ean Lekaion egin zuten ekitaldi irekian: "Ainara De Miguel izatez informatikaria eta Etxeberrri plazan dagoen Ikasmin akademiako zuzendaria da. Ekintzailea, herri gintzan hainbat elkarteetan parte hartzen duen pertsona da".

Hautagai berria txalo artean hartu zuten, eserlekutik altxa eta jendaurrera egin zuen ibilbidean. Segidan, bere hautagaitzaren aurkezpena egiteari ekin zion: "Ez daukat asmo berezirik; xuxe-xume, zer dagoen eginda, zer egin daitekeen eta zertan lagundu dezakeedan ikusi nahi dut. Ez naiz ohiko politikaria; formatzailea naiz, hezitzailea, informatikaria, herrian ibiltzen den eta herritarrekin egoten den pertsona naiz. Dakidan horretan ekarpena egiten saiatuko naiz".



Ainara De Miguel hautagaia. AIURRI

Izatez nafarra da, eta jatorriaren inguruko aipamenak ez zituen uxatu: "Batzuk akaso esango duzue, *Nafarroatik etorri, eta hasi da, bada, hemen...* Bai, izatez nafarra naiz baina Urnietan bizi naiz, eta umeak urnietarrak ditut. Aspalditxoan Urnietako gizarte bizitzan murgilduta nabil, herriko erakunde eta elkarte ezberdinetan parte hartuz: Muxu goxo zena, Zantapuz mendi elkarte, Egape ikastolan...".

Udaletxea kontzeptu gisa hartu zuen hizpide, ondoren. "Nahasketa egoten da maiz. Udaletxea, udalaren etxe gisa ikusiz hezi naiz. Baina hemen, Urnietan, hala denik zalantza egiten dut askotan. Udalean ardura politikoak dauzkanak herriarentzat lan egin behar du, ez herriak arduradun horrentzat".

Aurkezpena amaitu aurretik talde lana goraipatu nahi izan zuen: "Giza taldea behar da udalgintzan. Komunitatean bizi gara, eta bakarrik ez goaz inora. Urnietaren alde elkarlanean egingo duten pertsonak behar dira". Bakoitzak ahal duen moduan ekarpenak egiteko gonbitea luzatu zuen: "Iritzia eman eta ekarpenak egin daitezke ere, kafe baten inguruan edo whatsapp bidezko mezu bidez".

"GIZA TALDEA BEHAR DA UDALGINTZAN. KOMUNITATEAN BIZI GARA, ETA BAKARRIK EZ GOAZ INORA"



Aurreko astearen hasieran onartutako egitasmoen berri eman zuten. AIURRI

Hirigintza alorreko egitasmo ugari aurrera eramango dituzte

Bederatzi proiektu garatuko dituzte hurrengo hilabeteetan Urnietan, biztanleek hala eskatuta

Erredakzioa URNIETA

2019ko aurrekontuetatik 150.000 euro zertan gastatu erabakitze-ko aukera eskaini zien Udalak herritarrei urtarrilean abian jarri zuen parte hartze prozesuaren baitan, eta 171 galdetegi jaso ziren orduan. Hirigintzako teknikariak proposamen guztiak teknikoki bideragarriak ziren ala ez aztertu ostean, bederatzi lehenetsi dira, esan bezala.

Mikel Pagola alkateak eta Jorge Segurado Hirigintza alorreko zinegotziak parte hartze prozesuaren berri eman zuten joan den astean egin zuten agerraldian.

Hirugarren urtez jarraian jarri da abian parte hartze prozesua, eta urtez urte hobetzen joan dela adierazi zuen Pagolak. "100.000 euro izan ziren 2017an, 125.000an iaz eta 150.000 aurten. 171 proposamen jaso dira aurten, 56 kalean ipinitako informazio karpetan, 52 herriko puntu ezberdinetan ipinitako buzoi eta kutxetan, 33 udalaren webgunean eta 30 telefono bidezko aplikazioan. Herritarren proposamenak geroz eta gehiago dira, eta kalitatearen aldetik ere hobetzen doaz. Hirigintzako teknikariak zailtasunak eduki dituzte lehen-tasunen hurrenkera egin eta zerrenda osatzeko orduan, proposamen ugari jaso baitira interesgarriak eta egingarriak. Pozteko arrazoiak badauzkagu, herritarrek bere egin dutelako parte hartze prozesua, eta bertan aktiboki parte hartzeko ohitura hartu dutelako. Eskerrak

eman behar zaizkie horrexegatik".

Jorge Seguradok Udalak hasieratik zehaztu zituen irizpideak gogorarazi zituen agerraldian, hots, proposatzaileek kontuan hartu behar zituztenak ekarpenak egiteko orduan. Besteak beste, hirigintzarekin edo obrek zerikusia edukitzea, interes orokorrekoak izatea, edo eta, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak izatea.

Burutuko dituzten egitasmoak

Irizpide horiek eta hirigintzako teknikarien azterketa gauditu ostean, hona zeintzuk diren lehenetsi diren bederatzi proiektu horiek, hurrengo hilabeteetan gauzako direnak:

- Liburutegiko haurrentzako erEmua handitu (25.000 euro).
- Trenbideko zubian dauden espaloiak zabaldu (25.000 euro).
- Gorostidi elkartearen eremuko argiteria berritu LED sistemara egokituta (25.000 euro) eta espaloiak hobetu (25.000 euro).
- Txoritagailu auzoan San Juan kaleruntz dagoen irteerako baranda aldatu (18.000 euro).
- Musika eskolaren sarreran oinezkoek lehen-tasuna izan dezaten esku hartu (15.000 euro).
- Berrasoeta inguruko argiteria aldatuko da LED sistemara egokitu eta punturik ilunenak hobetu (10.000 euro).
- San Juan 40 parean neurriak hartu ur pilaketa ekiditeko (6.400 euro).
- Errekaldeko espaloietan eserlekuak jarri (600 euro).

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA

Partida gutxi batzuk jokatu
dira asteburu honetan

ESKUBALOIA	
SENIOR MAILA	
GIPUZKOA 1. MAILA	
Urnieta-Aritzatalde	23-25
SAILKAPENA	
1 Munttarpe	28 puntu
2 Eibar	24 puntu
3 Urnieta	23 puntu
4 Legazpi	22 puntu
6 Aritzatalde	18 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Munttarpe-Urnieta / Lar, 16	
GIPUZKOA 2. MAILA 1. TALDEA	
Urola-Leizaran	23-22
SAILKAPENA	
1 Urola	31 puntu
2 Leizaran	29 puntu
3 Hondarribia	17 puntu
SENIOR MAILA, NESKAK	
EMAITZA	
Leizaran-Usurbil	22-26
SAILKAPENA	
1 Urbil	4 puntu
2 Egia	2 puntu
3 Munttarpe	2 puntu
4 Leizaran	0 puntu
JUBENIL MAILA, NESKAK	
UDABERRI TORNEOA	
Urnieta-Eibar	21-17
Elgoibar-Leizaran	16-17
SAILKAPENA	
1 Leizaran	10 puntu
2 Elgoibar	8 puntu
3 Urnieta	6 puntu
4 Eibar	4 puntu
JUBENIL MAILA, MUTILAK	
GAZTE TXAPELKETA UDABERRI	
Urnieta-Elgoibar	25-26
SAILKAPENA	
1 Arrasate	8 puntu
6 Urnieta	6 puntu

GIPUZKOA TROFEOA	
Corazonistas-Leizaran	37-30
SAILKAPENA	
1 Hettich	8 puntu
2 Egibide	6 puntu
3 Bidasoa-Irun	4 puntu
5 Leizaran	2 puntu
KADETE MAILA, NESKAK	
EUSKADIKO KADETE LIGA	
San Adrian-Urnieta	35-23
SAILKAPENA	
1 Aiala	12 puntu
2 Errotaberri	10 puntu
4 Urnieta	4 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
11:30 Urnieta-Aiala / Lar, 16	
KADETE MAILA, MUTILAK	
GIPUZKOA TROFEOA	
Egia-Urnieta	38-37
SAILKAPENA	
1 Urola	8 puntu
2 Egia	6 puntu
3 Urnieta	4 puntu
UDABERRI TORNEOA	
Leizaran	Atsedon
SAILKAPENA	
1 Amenabar D	9 puntu
2 Ereintza	8 puntu
3 Leizaran	6 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
10:00 Leizaran-Amenabar / Lar, 16	
KADETE MAILA, NESKAK	
GIPUZKOA TROFEOA	
Eibar-Leizaran Urdina	25-30
SAILKAPENA	
1 Leizaran urdina	10 puntu
2 Pulpo	8 puntu
3 Eibar	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
-:- Leizaran-Pulpo / Lar, 23	



andoaINDARRA
euskaraz

Andoaingo eta Urnietako
partaidetza Lilatoian

LASTERKETA Kirola, aldarrikapena eta ospakizuna uztartzen dituen Lilatoian parte hartzea handituz doa, urtez urte. Andoaingo eta Urnietako ehundik gora korrikalari irten ziren, emakumeen aldeko asteburua borobilduz

Erredakzioa ANDOAIN
Izena ematerakoan Andoain herria ipini zuten parte hartzaileak 75 izan ziren, eta Urnieta ipini zutenak 39.

- Andoaingo parte hartzaileak**
Dortsala | Izen-abizenak
27 Ruiz Ochoa, Arantxa
239 Arabolaza Agirrezabal, Maider
304 Alduntzin Gutierrez, Idoia
331 Mendiluze Gonzalo, Idoia
463 Lasa Elizagarate, Shua
489 Lasa Elizagarate, Haize
541 Igarritz Castilla, Ainhoa
542 Lainez Lazcoz, Maider
553 Gonzalez Usarralde, Araitz
684 Agirre Etxeberria, M.Jesus
726 Alkorta Jauregi, Aiora
732 Alkorta Jauregi, Nagore
734 Goikoetxeaundia, Marijo
737 Jauregi Zubeldia, Irene
755 Telletxea Agirre, Olatz
759 Gabirondo Otaegi, Amaia
762 Moreno Galavis, M.Karmen
764 Vieira Moura, Sandra
928 Regillaga Yubero, Laida
942 Zumeta Tejjido, Erika
993 Obineta Gorostidi, Ariane
1035 Lopez De Arregi Etxenike, Eider
1038 Asensio Manterola, Itziar
1085 Alamo Ruiz, Angela
1186 Arratibel Pernas, Amaia
1232 Irulegi Otaño, Xare
1235 Irulegi Otaño, Aiara
1301 Zabala Iguaran, Nekane
1349 Capdequi Garcia, Nerea
1441 Talavera Leal, Ana
1916 Zalakain Mendizabal, Ana Isabel
1918 Zalakain Mendizabal, Jone
1940 Iribarren Ezama, Maixabel
1942 Muxika Artano, Olatz
2054 Arano Saldias, Maider
2059 Salbador Urkia, Goiatz
2117 Etxeberria Bobillo, Aitziber
2123 Diez Iztueta, Zuriñe
2126 Zabala Alfonso, Haizea
2202 Aldasoro de la Revilla, Haizea
2413 Vaquero Gonzalez, Maider
2426 Tapias Vidal, Olalla
2427 Fernandez Garcia, Eliana
2527 Zalakain Mendizabal, Marga
2530 Diez Zalakain, Irune
2697 Santa Kruz Arizmendi, Sara
2700 Santa Kruz Arizmendi, Maialen
- Urnietako parte hartzaileak**
Dortsala | Izen-abizenak
41 Madina Gonzalez, Margot
105 De Miguel, Ainara
116 Unanue Usabiaga, Arixen
298 Arruti Loyarte, Ainhoa



Lainez, Igarritz ahizpekin batera. LILATOIA

- 2731 Virgala Garcia, Marta
2741 Martin Rodriguez, Leire
2757 Jimenez Gonzalez, Itziar
2912 Roldan Hernandez, Rosa
2940 Alonso Villares, Noa
2958 Quevedo Garro, Amaia
2960 Martinez Patino, Rosi
3002 Guirado Donoso, Leyre
3149 Peña Lazaro, Virginia
3183 Saez Ocariz, Ana
3258 Ezaguirre Requejo, Itxaso
3414 Sernandez Marcos, Elisabeth
3541 Soto Casal, Lorea
3691 Sarasola Bengoetxea, Aitziber
3692 Jauregi Garmendia, Kristina
3693 Portuburu Peruarena, Bakartxo
3695 Lopez De Arregi, Maria Isabel
3700 Amondarain Rodriguez, Ane
3701 Martin Agui, Maite
3705 Conde Correa, Raquel
3822 Calvo Prieto, Amaia
4479 Galdos Agote, Maialen
4528 Nogales Gallego, Maider
4628 Tena Ugarte, Uxune
4629 Tena Ugarte, Izorne
5219 Garin Barrutia, Usoa
5390 Benito Huarte, Itziar
5434 Zabala Huizi, Leire
- 299 Soroeta Lopez, Elena
300 Etxeberria Izagirre, Ane
356 Goenaga Arruarte, Aizpea
423 Tomasena Alzuri, Rosario
519 Marin Ibañez, Ane
581 Goenaga S.Sebastian, Pilare
693 De Torres Bilabo, Irati
909 Moran Oses, Marijo
1060 Goikoetxea Ugalde, Miren
1308 Aranburu Garcia, Nerea
1329 Jauregi Lopez, Garazi
1548 Imaz Echeverría, Ainhoa
1550 Sanchez Martin, Leire
1599 Salaberria Telleria, Maria
1600 Iriberrri Mugica, Maider
1768 Manterola Loinaz, Uxue
1787 Usabiaga Salaberria, Garazi
2666 Jochim, Corinna
3126 Bermejo Benito, Ruth
3161 P. Arenaza Agirre, Izaro
3391 Cabrera Jauregi, Intza
3392 Moreno Manterola, Izarne
3393 Manterola Loinaz, Eider
3394 Alday Igerategi, Judit
3538 Iraola Etxarri, Eneritz
3703 Ziaurritz Albizu, Ainhoa
3709 Ziaurritz Albizu, Maider
3821 Alcantara Castillo, Bertha
4161 Gabirondo Iceta, Estibaliz
4228 Muro Vaquero, Maria
4383 Mellado Anso, Amaia
4803 Salsamendi Tolosa, Ane
4881 Etxeberria, Amaia
5251 Iriarte Lopez, Estitxu
5279 Aira Jimenez, Leire



BURUNTZALDEA IKT

Igerilariak Neguko Sarian

IGERIKETA Gipuzkoako Neguko X. Saria Lasarte-Orian izan berri da, eta bertan Unax Goenaga, Yaiza Martinez eta Garazi Irigoras Buruntzaldea IKT taldeko hiru igerilariak bikain aritu dira. Garazi Irigoras, esaterako, 50 eta 100 tximeletan aritu zen hirugarren eta bigarren postua eskuratuz. Martinez eta Goenaga librea eta lau estilotan bikain aritu ziren.

Gipuzkoako txapeldun-orde

TRINKETE Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola txapeldun-orde dira, eskuz binakako final estua jokatu eta gero. Behar Zana taldeko billabonatarrek lruran jokatu zen finala (40-37) irabazi zuten. Lau pilotarien maila bikaina izan zen. Urnietarrek markagailuan oso atzetik joatetik (23-13), aurrea hartzea lortu zuten (28-30, 30-32, 33-34). Lastima txapelak ihes egin izanak.



UKE



TXIRRINDULARITZA. KADETEAK

ZARAUTZ. 19-03-10

1	Haimar Etxeberria (Bazpi)
2	Haritz Sein (Dinuy)
3	Iñaki Errazkin (Donosti Berri)
4	Iker Atxaga Galarza (Andoaingo)
28	Unai Galarza (Andoaingo)
44	Peru Alkain (Andoaingo)
53	Ibai Omeñaka (Andoaingo)
54	Mikel Goikoetxea (Andoaingo)
58	Iker Balbas (Andoaingo)
80	Ekain Mitxelena (Andoaingo)
85	Iker Atxaga Robles (Andoaingo)

ARETO FUTBOLA. ANDOAIN

EMAITZAK. 19-03-10

Carpinteria Antonio-Ganbara Bi	6-5
Irunberri KE-La Almazara	5-0
Ganbara-Keler	0-9
Academia GF-Rayo Andoain	12-0
Batzokia-Brew & Roll	8-4
Pausoka-Aker Beltz	2-7
DAD Kutxa-Brikogoros	6-2

SAILKAPENA

1	Keler	21
2	Carpinteria Antonio	19
3	DAD KUTXA	18
4	Aker Beltz	15
5	Ekhia	15
6	Irunberri	15
7	Ganbara bi	12
8	Lanbroa	11

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ARETO FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Hernani	2-1
Urnieta-Dunboa	2-0

SAILKAPENA

1	Euskalduna	59 puntu
2	Touring	49 puntu
3	Mundarro	45 puntu
4	Baskonia	43 puntu
5	Billabona	40 puntu
12	Urnieta	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:00	Gure Txokoa-Urnieta / Lar, 16
17:15	Trintxerpe-Euskalduna / Lar, 16

ERREGIONAL MAILA

KOPA

Euskalduna-Bosteko	2-1
--------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Intxurre-Euskalduna / Ig, 17
-------	------------------------------

GORENGO MAILA, NESKAK

IGOERA FASEA

EMAITZA

Mutriku-Urnieta	1-4
-----------------	-----

SAILKAPENA

1	Intxaurdi	12 puntu
2	Urnieta	12 puntu
3	Hondarribia	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

18:00	Urnieta-Beti Gazte / Lar, 16
-------	------------------------------

KOPA

EMAITZA

Euskalduna	Atsedan
------------	---------

SAILKAPENA

1	S.Tomas	9 puntu
2	Euskalduna	6 puntu
3	Intxurre	6 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Euskalduna-Oiartzun / Lar, 16
-------	-------------------------------

JUBENIL MAILA

OHOREZKOA

Euskalduna-Urola	1-0
------------------	-----

SAILKAPENA

1	Billabona	49 puntu
---	-----------	----------

2	Mondragon	47 puntu
7	Euskalduna	33 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Aretxabaleta-Euskalduna / Lar, 16
-------	-----------------------------------

KOPA

Danena-Euskalduna	4-3
Sanse B-Urnieta	2-0

SAILKAPENA

1	Usurbil	13 puntu
3	Urnieta	11 puntu
7	Euskalduna	2 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00	Euskalduna-Usurbil / Lar, 16
-------	------------------------------

16:00	Urnieta-Baskonia / Lar, 16
-------	----------------------------

KADETE MAILA, OHOREZKOA

EMAITZA

Hondarribia-Euskalduna	1-2
------------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Antiguoko / Lar, 16
-------	--------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

KOPA

Intxaurdi-Euskalduna	4-4
Danena-Urnieta	0-1

SAILKAPENA

1	Mundarro	18 puntu
3	Euskalduna	10 puntu
7	Urnieta	3 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:00	Euskalduna-Goierri A / Lar, 16
-------	--------------------------------

11:30	Urnieta-Intxaurdi A / Lar, 16
-------	-------------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

KOPA, 5. MULTZOA. PARTIDA

12:00	Hernani-Urnieta A / Lar, 16
-------	-----------------------------

KOPA, 7. MULTZOA. PARTIDA

13:15	Urnieta B-Danena / Lar, 16
-------	----------------------------

ARETO FUTBOLA

EMAITZA

Euskalduna-Gure Txokoa	11-2
------------------------	------

SAILKAPENA

1	Samaniego	48 puntu
2	Jaixki	47 puntu
3	Euskalduna	46 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

17:30	Anoeta-Euskalduna / Lar, 16
-------	-----------------------------



AIURRI

Emakumeen pala topaketa Arrate pilotalekuan

Ez da berria emakumeen pala topaketa, aurtengoa laugarren edizioa izan baita. Antolatzaileek, deialdi irekiaren bitartez, emakumezkoak frontoira erakarri

nahi dituzte. Palari lotuta, gainera, urtero antolatzen den Iturzaeta memorialean eta Goiburuko txapelketan emakumezkoek lehiatzeko aukera izaten dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 14

ANDOAIN Hitzaldia
Iñigo Barandiaran Kongresuko diputatuak pentsioei buruzko hitzaldia eskainiko du. EAJ-PNVk antolatuta. Herritar guztiei irekia.
19:00, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa
"Herria herri egin zuten emakumeak" argazki-erakusketa Basteron ikusgai.
Apirilaren 6ra arte.

ANDOAIN Outlet irekia
Salkin elkarteko dendarien eskutik. Arratsaldean, kaleak girotzeko Gora Kaletxiki txaranga.
17:00, Txarangak kalez kale.

URNIETA Inmigraginea
Amher-SOS arrazakeriaren laguntzaz antolatuta, "Cosas que dejó en la Habana".
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 15

ANDOAIN Outlet irekia
Salkin elkarteko dendarien eskutik.
Hainbat merkatalgunetan.

URNIETA Ipuin kontaketa
4 urtetik gorakoentzat, Marisa Taberneroren euskarazko saioa.
17:30, Lekaio.

URNIETA Odol-emaileak
Deialdia 18:30etik 20:30era.
18:30, Anbulatorio zaharrean.

URNIETA Zinegoak
Gaylesbotrans filmak ikusgai, Bilboko Zinegoak jaialdian eskainitakoak.
22:00, Lekaio.

ANDOAIN Antzerkia
"Una habitación propia (Virginia Wolf)", Clara Sanchisen eskutik.
21:30, Bastero.

LARUNBATA 16

URNIETA Antzerkia
Atx konpainiaren eskutik, "7ak bat, gaiztoetan gaiztoenak" antzezlanak euskaraz.
19:00, Sarobe.



Egape DTko dantzariak saio ikusgarria eskaini zuten, duela bi urte. AIURRI

URNIETA Korrika Batzordea
"21. Korrika badator eta Urnietako batzordeak zuen laguntza behar du". Ostegun honetarako bilera deitu dute euskaltegiko beheko gelan. Hurrengo asteetako hitzorduak lotzeko eta lanak banatzeko hitzordu garrantzitsua da.
18:30, Urnietako euskaltegia. Martxoak 14, osteguna.

ANDOAIN Kontzertua
"Dama beltzak kontzertua", Estitxu Pinatxo eta Mikel Sanchezen eskutik.
20:00, Bastero.

ANDOAIN Kontzertua
Elbereth, Horzdun eta Torheit taldeak zuzenean.
22:00, Gaztetxea. 6 euro.

OSTEGUNA 21

ANDOAIN Lehiaketa
Inauterietako argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Sari bakarra, 250 eurokoa.
Lanen aurkezpena: Bastero.

ANDOAIN Solasaldia
Martin Ugalde Foroa: "Euskaraldia: Aktibazioaz, elkarlanaz eta hizkuntza ohiturez" solasaldia. Hizlariak: Eneritz Rekarte, Kike Amonarriz eta Maddi Etxebarria.
19:00, M.Ugalde kultur parkea.

ANDOAIN Kontzertua
"Emakume ausartak, emakume solidarioak" izeneko flamenko ikuskizuna, Jaizkibel Konpainiaren alde.
20:00, Bastero.

OSTIRALA 22

ANDOAIN Ikuskizuna
"Simbatik Kiarara, El Rey Leonen tributoa". Musika, dantza eta antzerkia.
20:00, Bastero.

URNIETA Zinegoak
Gaylesbotrans filmak ikusgai, Bilboko Zinegoak jaialdian eskainitakoak.
22:00, Lekaio.

LARUNBATA 23


ANDOAIN Tailerra
Berdintasun Kontseilua sortu ala ez erabakitzeko bilera. Informazio gehiago, 7. orrialdean.
10:00, Bastero.

ANDOAIN Kontzertua
Bad Sound eta Jah Initti zuzenean.
22:00, Gaztetxea. 6 euro.

IGANDEA 24

URNIETA Haur antzerkia
Tomaxen abenturak "Espien eguna" haur ikuskizuna.
17:30, Sarobe. 3 euro.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
La mujer de la montaña
Larunbata, 16: 19:30; 22:00.
Igandea, 17: 19:30.
Astelehena, 18: 19:30; 22:00.
Asteartea, 19: 19:30.

El Grinch
Lar, 16: 17:00.
Igandea, 17: 17:00.
Asteartea, 19: 17:00.



SINOPSIA



Grinch
Zuz.: Yarrow Cheney, Scott Mosier. **Herr.:** AEB. **Generoa:** Animazioa. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Iraupena:** 86 minutu.

Heroi bilakatutako animalia

Minion film arrakastatsuen sortzaileen eskutik, Eguberriak ardatz duten animaziozko film berria. Eguberria lapurtzen ahaleginduko dira, abenturaz beteriko filman.

SINOPSIA



La mujer de la montaña
Zuz.: Benedikt Erlingsson. **Herr.:** Islandia (2018). **Aktoreak:** Halldóra Geirharðsdóttir, Jóhann Sigurðarson. **Iraupena:** 101 minutu.

Ingurumena eta amatasuna

Horixe da filmaren sinopsia irakurrita ondorioztatu daitekeena. Aktore nagusia emakumezkoa da, 50 urtekoa. Herriko aluminiozko industriari aurre egitea erabaki du, azkeneraino iristeko prest agertuz. Baina, ezustean, haurra bere gain hartzeko gutuna iritsi zaio.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN-OIARTZUN Kattalin
Martxoaren 21ean 8 urte beteko dituzu. Muxu piloa bat amonaren eta familiaren partez! Ondo pasa!



URNIETA Alain
Martxoaren 13an 7 bete zenituen. Zeinen ondo zenun lagunekin!! Izugarri maite zaitugu. Muxuak!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Oso erraza da, eta dohainik:

www.aiurri.eus
webgunea

"Zorion agurra" atalean, fitxa osa ezazu. Urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunea. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua eta argazkia bidali, herria zehaztuz.

Arantzibia 4-5, behea. Andoain
943 300 732.

Whatsappez:

619 16 35 37

Mezua eta argazkia bidali Aiurriko posta elektronikora herria zehaztuz.

Urnietako odol-emaileen hitzordu berria

Urnietako Odol emaileen taldeak hitzordu berria iragarri du, ostiral honetarako. Urnietarrek, beraz, datorren martxoaren 15ean odola emateko aukera izango dute. Anbulategi Zaharrean (Denda Berri jubilatuen egoitza), ohi bezala, arratsaldeko 18:30ean hasi eta iluntzeko 20:30ak arte. Esan beharrik ez dago odola ematea garrantzia handiko ekintza dela.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 16 eta igandea 17

ANSA: Ondarreta, 8.

943 591 302. Andoain.

URNIETA

Larunbata 16 eta igandea 17

ODRIOZOLA: Idiazabal, 18.

943 334 014. Urnieta.

GAUEZ, BI HERRIETAN: ALDABE.

943 336 022. Hernani.

Zuhaitzaren eguna Urnietan

Asteartea goizean, Egape ikastolako eta Magale ikastetxeko lehen hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek, Berrasoeta aldean haritzak landatu zituzten. Basozainen eta irakasleen laguntzarekin, bertan dagoen harizti kopurua handitzea lortu zuten. Udalaren ekimenez, ikasleek urteroko ohitura biziberritu zuten. Dagoeneko hainbat zuhaitz landatu dituzte herrigunean.



AIURRI



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kioskora eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi (Urnietan).
Diseinua: Goiiena Komunikazio Taldea
Zorion agurra, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

ZABALIK

MARIA PILAR ARRUIZ GARCIA ANDOAIN

Gezurtiak

Donostian klima aldaketari buruzko konferentzia antolatu dutela-eta, egun hauetan bolo-bolo dabil hedabideetan *Change the change* esaldia.

Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatua berriro ere azaldu zaigu, beti bezala, berak gustuko duen formatuan, inoren aurrean jarri gabe bakarrik eta gezurretan, esanez Foru Aldundiak neurriak hartu behar dituela klima aldaketa gerta ez dadin. Baina, Asensio jauna, zuk ederki dakizu errausten den guztiak karbono dioxidoa sortzen duela eta, beraz, klima aldaketarekin lotuta dagoela.

Errausketa = Klima aldaketa

Aldundiaren datuetatik ondorioztatzen da 110.000 tona hondakin sortu zela Gipuzkoan 2018. urtean. Kopuru hori behera doa urtez urte eta horren zati handi bat Donostia, Irun, Lasarte-Oria eta Hondarribian sortzen da, hau da, zabor gehien sortzen duten udalerrietan. Bertan ahalegin gehiago eginez gero, asko txikitu litzateke Gipuzkoan sortzen den errefufusa kopurua. Baina, noski, Zubietako errauskailua 200.000 tonako jasotzeko dago diseinatua.

Oso gaizki planifikatua dago proiektua eta hasieratik Olanoko Asensio gezurretan ibili dira. Nola liteke, errauskailu bat egiten hastea, lurralde honetan egun sortzen den eta etorkizunean sortuko den zaborra kontutan hartu gabe. Behin eta berriro ukatu duzue herrialdeetik kanpoko zaborra inportatzeko asmoa duzuela. Guztiok dakigu Urbaser enpresarekin sinatu duzuen kontratuan beraien esku utzi duzuela errauskailuaren kudeaketa. Ustelkeri kasuetan nahastutako enpresa horrek erabakiko du 200.000 tona arteko zaborra nondik lortu eta nola kudeatu, inongo kontrolik gabe erretzeko ahalmena baitu.

Gipuzkoarrok birziklatze lana ondo eginez gero, sortzen eta etorkizunean sortuko dugun zaborrarekin nekez beteko dugu eraikitzen ari diren bi labeetatik bat. Zertarako bigarrena? Gure ingurumena eta osasuna dago jokoan. Merezki al ditugu Asensiok eta Olanok sinatu duten kontratu horretan jarritako baldintzak? Ez al diguzue egia zor, gipuzkoar guztiok? Merezki al dugu gezurretan jarraitu eta benetan gertatuko dena ezkutatzeko jarraitzea?

Zuen jarrera ez da batere dotorea. Hedabideetan irudikatzen zuten *Zubietako Ingurumen Zentruak* ez zuten tximiniarik bistan. Baina, jadanik argazkietan ikusten dira tximiniak, CO₂, dioxinak... airera isuriko dituztenak.

Olanoko Asensio, koldar batzuk zarete, mahai inguruetan parte hartzen ez zarete ausartzen? Zergatik ote da? Egia ezkutatu eta gezurrak besterik esaten dituzuelako?

Klima aldaketaren kontra lan egin duten hedabideei ere deialdia luzatu nahi dizuegu, gai honetan dauden ikuspuntu guztiak azal ditzazuen, ezkutuan dauden gaiak azaleratzen eta egia erdiak edo gezur osoak salatzen.

Badakizue, zuek nahi izanez gero, gu prest gaudela gipuzkoarrek merezi duten egia osatzen laguntzeko.

www.aiurri.eus

AIURRI BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA
• Iritzia
• Postontzia



Txirrindulariak Kaleberrian. AIURRI

Txirrindularitzaren kimu berriak

Andoaingo Txirrindulari Eskolak alebin eta infantil mailako lasterketa antolatzen duen, Kaleberrian egokitu zuten ibilbidean. Trebaketa ariketa bikaina gaztetxoentzat.



Harrobia osasuntsu dago. AIURRI



Iazko edizioa. AIURRI

'Outlet kalean', Salkinen eskutik

Ostegun honetan, Andoaingo hainbat merkatalguneetara hurbiltzen direnek eskaintza berezietan gozatzeko aukera izango dute. Eskaintza bereziak girotzeko, Gora Kaletxiki txaranga kalez kale ibiliko da arratsaldeko 17:00tik aurrera. Merkataria batzuk kanpaina berezia ostiralera luzatuko dute.

AZKENA



Clemen Gracia eta Andrea Cueva ama-alabak eta Jose eta Sheila Correas aita-alabak.



Triana kideek topa egin zuten Udal ordezkariekin, egoitzan bertan. AIURRI



Ospakizunean ere Zumba eta dantza garaikide berriak eskaini zituzten. AIURRI



Ospakizuna aurrera ateratzeko lan taldea ezinbestekoa da. AIURRI

Andaluziako egunari ezin hutsik egin

Ekitaldi ugari antolatu zituzten Nafarroa plazan, joan zen igandean, Andaluziako egunaren ospakizunekin bat eginez. Ospakizuna tradizio bihurtu da Andoaingen, andaluziar jatorriko hainbat herrikideentzat garrantzia handikoa bilakatu dena

Xabier Lasa ANDOAIN

Triana elkarteko kideek Andoaingo udal ordezkariekin batera brindisa egin eta Andaluziako ereserkia abestu zuten, jaiari hasiera emanez. Ondoren, Zumba Gym Saito eta Zunbalokura gimnasioekin, sebillanak, pintxo jatea eta bazkaria heldu ziren. Triana elkarteak 25 urte betetzen ditu aurtun. Efemeridea gogora ekarri zuen elkarteko lehenda-

kari lanetan dabilen Maria Vallorek. Sortu zenetik hasierako helburuari eusten dio, hots, Andaluziako kultura, ohiturak eta gastronomia sustatzeari.

Clemen Garcia eta Andrea Cuerva ama-alabak Triana sebillanen taldeko partaideak dira, eta atzo dantza saioa egin zuten, Jose eta Sheila Correas aita-alabarekin batera. Clemen Garcia adierazi zuenez, sei bat

dantzariak osatzen dute dantza taldea: “denok ere tarte txikia dugu astean zehar, eta entseatzeko igande eguerditan biltzen gara. Neu jaiotzez lasartearra naiz, eta gurasoak Extremadurakoak ditut, baina aitortu behar dut alaia eta polita dela Andaluziako musika. Bere dantzak oso sensualak dira, eta horrek emakumeari taula gainean luzitzeko aukera ematen dio”.

Clemen Triana elkarteko kidea da 1994an sortu zenez geroztik: “Lagun batzuk Triana kide izateko animatu ninduten. Poliki-poliki, Andaluziako kultura ezagutzen eta maitatzen joan nintzen. Guretzat berezia da Andaluziako komunitatearen eguna, eta ohore guztiarekin ospatzea eskatzen digu. Otsailaren 28an da ofizialki, baina inauteriak zirela eta martxoak 8ko ekitaldiak zirela eta, aurtengo ospakizuna atzeratu behar izan dugu. Aparteko egun horiek herriak eta kulturak goratzeko balio dute, eta batez ere, pertsonak sentimendu baten inguruan elkartzeko. Azken batean, bizitza nahiko gogorra egiten zaigu bestela ere, eta gizakioi premiazoak egiten zaizkigu antzeko jaiak, betiko errutina hautsiko dizkigutenak eta poza eragingo digutenak”. Ahal den bitartean, bizipozen alde.